



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

BIZKAIKO ZUBIA. Olgetan egiten daben bitartean, umeek ikasteko aukerea be izaten dabe. Hor, argazkian, txalupa baten sartuta Bizkaiko Zubia zertan dan ikasten dabe.

Umeentzako oporrak, eurentzako lekuan

GABONETAKO HAUR PARKEA. Bilboko Nazinoarteko Erakustazokan kokatu dabe PINa. Lau urtetik gorako umeak olgetan ibili daitezkan, pisu bi egokitu ditue

MARKEN GARRANTZIA

Merkatuak zehaztutako gune eta jokoak

Gabonetako Umeen Parkeko jolasak standetan antolatuta dagoz. Hortaz, enpresa edota talde bakotzak bere jarduera propioak egokitzen ditu, hari lagatako gunean.

Bizkaibus, Metro Bilbao eta Eusko Jaurlaritzak euren standak ditue, gehienetan, euren jarduerak ezagutu eragiteko. Horreen moduan, zenbait komunikabideek be presentzia nabarmena daukie: El Correo, Deia eta ETB, batez

be. Telefoniako operadore nagusiak be han dagoz: Euskaltel eta Telefónica. Horreen parean, Gobernu Kanpoko Erakunde askoren guneak ikusi leitezke: Hirugarren Mundua eta Bakea, CEAR-Euskadi, Unicef, Andra, e.a.

Olgetan dabilzan bitartean, euren errealidadearen barri euki dagien egiten dabe behar zenbait standek. Beste batzuen helburua da umeek ondo pasetea, eurentzako ekintza pilo bat eskainita. Azkenean, badira hor publikidadea egiteko aprobetxetan dabilzala emoten dauenik be. Sari bidezko pedagogia alde batera itxi eta, zein da umeak marka identifiketako benetako arrazoia? Hori itauna.

Maria Gonzalez |

Lau urtetik gorako umeek ez dabe kale egin aurtan be ez eta Bilboko PINa bete dabe. Adinaren arabera mota guztietako jarduerak antolatu ditue, Gabonetako oporrak ondotox pasau dagien haurrek. Aitatzekoa da ordenagailuek gero eta presentzia nabarmenagoa daukiela umeen olgetan.

Pisu bi egokitu ditu udalak Nazinoarteko Merkataritza Azokan. Sei urtetik aurrerako umeentzako ekintzak beheko soilaruan dagoz. Goikoan, ordea, Eusko Jaurlaritzaren gunea dago. Bertan, hamar urtetik beherakoentzako atoindu ditue zenbait stand. Gainera, haurtzaindegia be bigarren solairu horretan dago. Horixe da guraso askoren kexa: «Sei urtetik beherako umei zuzendutako aktibidade eskasak», hain zuzen.

Sarreraren bertan Bilboko Portuagaz topo egiten dau bisitariak. Itsasontzi erraldoira igon

eta azokan galduta dagozan beste itsasontziak periskopioagaz topau ezkerro, giltzatako bat emoten joko irabazleari. Bilboko Portutik urtetan dau egunean hainbat bider kale antzerkia, itsaspeko ontzia eta dana.

Horren ondoan, BBK-ren stand-a dago, non mendiaren urtea dan legez, «horren inguruko jarduerak» prestatu ditue, antolatzaileek azaldutakoaren arabera. Ski pistatik behera joan leitezke, rokodromoa igo eta tontorrean Alberto Iñurritegigaz alkatu, edota lehiaketetan parte hartu. Halanda be, badira behin eta barriro eskietan dabilzan umeak. Eta jarduerak horretan ibili da jenterik gehien. Ski pistatik urteteagaz batera, ilaran paretan dira, barriro bajatzeko asmoagaz.

ETB 1eko Betizu klubak telebistako betimuak ekartzen ditu egunero Bilbora. Horrek dantzan eta kantetan ikusteko aukera daukie klubekoek. Oraindik bazkide ez diranek bertan bete ahal dabe inskripzioa eta bazkideen antzera, arrakastatsu